

## **SEGMENTAZIOA**

Gure enpresak bi motatako ibilgailu eskaintzen ditu: furgonetak eta autokarabanak. Hasieran gehiengoari furgonetak eskainiko genizkioke, baina beren beharretara egokitzeko, nahiago badute autokarabanak eskaintzen dizkiegu erosoago egoteko, espazio gehiago izateko etab. Eremu geografikoari dagokionez, gure enpresa Espainiako ipar aldetik lan egiten du, gehienbat Euskal Herriatik eta Kantabriatik. Honekin batera, gure enpresa hainbat perfil pertsonal desberdinetarako pentsatuta dago, hala ere, gure prezioak ordaintzeko ahalmena izan behar dute. Beraien eskaeraren arabera, guk bidaia antolatzen diegu hurrengo irizpideen arabera:

### **FAMILIAK UMEEKIN**

Gure enpresa egokituta dago gehienbat bezeroen adinaren arabera. Adibidez, ume jaio berria duten familiei ez diegu gure zerbitzua gomendatzen, furgoneta batean hainbat egun egoteak ez delako aproposena, berriz, familiak umeekin (3 urtetik 18ra gutxi gorabehera) etortzen badira mendiko ibilbideak (Anboto, Gorbea, Izki) eta jaistean picnic bat antolatzen dugu eta ibilaldian zehar umeentzako pista jokuak antolatzen ditugu, eta hain umeak ez direnentzako beste ekintza batzuk proposatzen ditugu, hala nola, eskalada, BTT ibilbideak diseinatzen ditugu eta horretarako mendirako prestatuta dauden bizikletak eskaintzen ditugu, gainera ekipamendua (kaskoa, belaun-babesak...) ez badute, guk eskaintzen diegu. Parke naturaletan (Valderejo, Gorbeia, Aizkorri-Aratz, Urkiola...) mugikorreko aplikazio bat, non tokiko landareak eta animalia desberdinak agertzen diren eta helburua hauek aurkitzea da. Zooak (Cabarceno). Parkea bisitatu eta gero pertsona espezializatu batekin umeek eta gurasoek aukera izango dute animalia batzuetatik hurbil egoteko eta animaliei jateko emateko aukera ematen diegu. Ibilaldiak (Zumaiatik Debara flysch-a ikusteko, Delikako ur jauzia, Corraladas eta Altubeko ur-jauzia, Astun ibaiko ur jauzia, Guargueroko ur-jauzia, San Juan Gaztelugatxe, Omako basoa, Iratiko basoa)... eskeiniko dizkiegu. Ibilaldian zehar baserri batean gelditzeko, janari tipikoa jateko eta bertako bizitza ezagutzeko aukera ematen diegu.

Familiaren kideen kopurua kontuan hartuta, familia ugarietzako, furgoneta eskeini ordez, autokarabana bat gomendatzen diegu erosoagoa delako eta leku gehiago izango dutelako. Berriz, familia txikietzako (4tik beherako kideekin) furgoneta batekin nahiko izango dela pentsatzen dugu. Hala eta guztiz ere, bezeroek bi ibilgailuen artean aukeratu ahal izango dute kideen kopurua edozein izanda.

### **ADIN NAGUSIENTZAKO**

Adin nagusiko taldeentzat osasunaren arabera antolatzen ditugu, sasoiaren dauden adinekoentzat da gomendagarria gure eskaintza. Alde batetik talde txikietzako (hala nola, bikote erretiratu bat, 4 laguneko taldetxo bat, bi bikote...) furgoneta ondo etorriko litzaieke. Talde handientzat berriz, txango bat adibidez, 5 pertsonako taldeak egingo genituzke eta talde bakoitza autokarabana banan banatuko genituzke. Ibilbide lasaiak antolatzen ditugu. Esate baterako, spa batera joatea (Panticosako spa, La Perla, Spa Vithérapie Caudalie...), museoak bisitatzeko (Artium, Guggenheim, Arabako Arma museoa, San Telmo Museoa...), bertan erakustaldia egiten ari den artista ezagutuko dute. Udan hondartzetara joatea (Playa de Oyambre, Playa de Bellerin, El Madero...) ruta gastronomikoak. Azken horietan jatetxeetako sukaldaria sartzeko aukera ematen diegu eta plater tipikoenak nola egiten diren ikusi ahal dute (Karlos Arguiñanoren jatetxea, El Portalon, perretxiCo, Asador Matxete...) eskaintzen dizkiegu. Horretaz aparte upeltegiak bisitatzeko aukera eskaintzen dizkiegu ( Bodegas Altuiz, Bodegas Muga, Bodegas Lopez de Heredia, Bodegas y Viñedos Tritium...). Bertan ardoa eta janaria dastatuko dute eta gainera mahatsak biltzeko aukera izango dute. Azken aukera antzerki-emanaldiak ikustea da adibidez Gasteizko Printzipal Antzokian, Bilboko Arriaga antzokian edo Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Emanaldia hasi baino lehen antzerkiko kamerinoak eta eszenatokiaren atzetik dauden lekuak ikusteko aukera izateaz aparte, aktoreekin meet and greet bat izango dute.

## **GAZTEENTZAT**

Gazteentzat gehienbat bizipenez betetako bidaiak antolatzen ditugu, batez ere 18 urte gorako gazteentzat pentsatuta. Talde batek ekintza bat antolatu nahi badu, esaterako, urtebetetze bat, ezkondu aurreko agurra, unibertsitarioen kurtso bukaerako bidaia, eztei-bidaia (gazteentzako zein helduentzako), bikote baten maitasun bidaia, etab. kideen kopuruaren arabera, furgoneta edo autokarabana aukeratuko genuke eta bidaia haien beharretara egokituta egongo litzateke. Ekintza horien artean, festibal ezberdinetara joatea (Arenal Sound, Azkena Rock, BBK, Viña Rock, Jazzaldia, Holika...) eta kontzertuak hasi baino lehen musika teknikariekin egoteko aukera izango dute eta dena nola kontrolatzen den azalduko die, plan hau ezin hobea izango litzake adibidez, unibertsietarioentzako edo eztei-bidai batentzako zergatik ez! hau da, festa nahi dutenentzako. Abenturazaleak direnentzako, tirolinak eta abentura parkeak (Hontzaextrem, Sobron) proposatzen diegu. Sobronen adibidez piraguismoa egiteko aukera eta paintball egingo dute. Beste aukera ausartago batzuk puenting-a egitea, atrakzio parkeetara joatea, ur parkeetara joatea eta txirrista altuenetan igo! etab. Gero, bidaiaren azken egunetan erlaxatzeko ekintzak aukeratu ahal dituzte, hala nola, spa bat, masajeak, aquarium bat bisitatu...

Sailkapen honi esker, etorkizunean publizitatea egiteko, salmenta-puntua aukeratzeko, etab. erraztasun handiagoa izango dugu, eta horrela bezeroengana hobeto iristeko gai izango gara.

### **Paketeak:**

#### **Kirol zaleentzat:**

- 1.-Gasteiztik atera eta Sobronera joan eta bertan ekintzak egin eta gaua Lantaronen dagoen La Presa zerbitzugunean gaua pasatu.
- 2.- Hurrengo egunean Bergantzura joatea eta uraren ibilaldia egin eta gero Urizaharran dagoen zerbitzugunean gaua pasatu.
- 3.- Toloño mendia igo eta San Gines hiribidean dagoen Zerbitzugunean lo egin, Labastida ondoan.
- 4.- Laugarren egunean Okinatik Sasetarako bidea egin eta gero Korres herrira joan, bisitatu eta bertan 5 Calle Afuera dagoen zerbitzugunean lo egin.
5. Aizkorri Aratz parke naturalera joan eta gaua Seguran dagoen zerbitzugunean lo egin.
6. Gasteiz ondoan dagoen Ullibarri-Ganboa urtegia inguratzeko ruta egin eta bidaia Gasteizen amaitu.

#### **Hiriak bisitatzekoa:**

- 1.- Lehenengo egunean Gasteizko alde zaharra bisitatu, muralak eta Forondako atea kalean dagoen zerbitzugunean lo egin.
- 2.- Oñatira joan eta herria bisitatu ondoren Ugarkalde zerbitzugunean gaua pasatu.
- 3.- Ondoren Donostira joan, Alde Zaharra, Haizearen Orrazia eta akuaria bisitatu eta Berio parkean dagoen zerbitzugunean lo egin.
- 4.- Hurrengo egunean Zarautzera joan eta hortik getariara ibilaldi bat egiten joan eta etorri ondoren furgoneta hartuta Zumaiara joan flysh-a ikustera, bertan Sagar bidean dagoen zerbitzugunean gaua pasatu.
- 5.- Zumaiatik Bilborako bidaia egin hurrengo egunean, bertan leku turistikokoak bisitatu (Guggenheim eta Alde Zaharra)
6. Bilbotik Gasteizerako bidaiaren Durangon geldialdi bat egin eta Santa Ana plaza eta Durangoko merkatua bisitatu. Ondoren bidaia Gasteizen amaitu.

#### **Gastronomikoa**

- 1.- Gasteizen bidaia hasi eta Perretxikon tabernan jan, eta lakuako zerbitzu gunean gaua pasa.
- 2.- Gasteizetik Oriora xixario erretegiara joan eta gaua bertan pasatu
- 3.-Oriotik Getariara joan eta bertan iribar jatetxean jan eta gaua pasa.
- 4.- Getariatik Bilbora joan eta bertan La Casiat de Sabino jatetxean bazkaldu. Hurrengo egunean Bilbotik Gasteizera bueltatu eta bidaia amaiatu.

